

## Unai Iraola Iriondo-k bere tesia irakurri du

2014/07/02

Uztailaren 1ean, eguerdiko 12:00etan Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoko Unai Iraola Doktoregaiak bere doktore-tesia aurkeztu zuen Polo Garaia Auditorioan. Tesiaren izenburua Electro-thermal optimization of an energy storage system based on li-ion batteries eta tesi zuzendaria: Ander Etxeberria. Gainera Bikain kalifikazioa lortu zuen. Honetaz gain, Europako Doktore aipamena jaso zuen.

Epaimahaia horrela osatu zuen:

- Mahaiburua: Helmuth Biechl (Kempten University of applied sciences) Dk. Jn.
- Mahaikidea: Andre Martinez (EIGSI) Dk. Jn.
- Mahaikidea: Javier Rodriguez Aseguinolaza (CIC Energigune) Dk. Jn.
- Mahaikidea: Jon Andreu Larrañaga (EHU/UPV) Dk. Jn.
- Idazkaria: Ander Goikoetxea Arana (Mondragon Unibertsitatea) Dk. Jn

Lan honen gaia zelula elektrokimikoetan oinarritutako biltegitratze sistemak dira, zehazki litio bateriak, horien energi dentsitate handiaren eta bizitza baliagarriaren ondorioz oso egokiak direlako trakzioko aplikazioetarako eta sare elektrikoko biltegitratzeko. Tesi honen gaia litio baterietan oinarritutako biltegitratze sistemen optimizazio elektro-termikoa da, horien bizitza baliagarria luzatzeko, dituzten prestazioak ahalik eta gehien aprobetxatuz.



Unai Iraola Iriondo-ren tesia defentsa